



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

IV. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2021eko ekainaren 9, 10 eta 11a
Gasteiz, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Komunitarioa: gizarte
zerbitzueterako aukera**

Nerea Zubillaga Herran

87-94 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iv.02.11>



Komunitarioa: gizarte zerbitzuetarako aukera

Zubillaga-Herran, N.
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU
nerea.zubillaga@ehu.eus

Laburpena

Gizarte Zerbitzuek gizartearen ongizatea bermatzea helburu dutela ulertu daiteke, aldiz, helburu horri heltzea oztopatzen dien erronka estruktural batzuk dituzte. Lan honetan, erronkak ezagutu, hauek aztertu eta gizarte langintzaren dimentsio komunitarioaren bidez, gainditzeko planteamenduak proposatzen dira. Gizarte langintza komunitariotik eratorritako planteamenduak parte hartzean eta harreman sareetan oinarritzen dira, egoera sozialak modu kolektiboan ulertuz eta ondorioz, eraldaketara bideratuz. Azkenik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren baitan, dimentsio komunitarioaren garapena ezagutu nahi izan da, hausnarketa errealitatera hurbiltzeko asmoz. Guztia, iturri ez zuzenez azterketaren bidez burutu da.

Hitz gakoak: Gizarte zerbitzuak, gizarte langintza, komunitatea, parte hartzea, harremana.

Abstract

It can be understood that Social Services are aimed at ensuring the well-being of society, while there are some structural challenges that hinder them from achieving this goal. In this work, approaches are proposed to know the challenges, analyze them and overcome them through the community dimension of social work. Approaches derived from community social work are based on participation and networks of relationships, understanding social situations in a collective way and, as a result, focusing on transformation. Finally, within the Basque Social Services System, the aim was to get to know the development of the community dimension, with the aim of bringing reflection closer to reality. All of this was done through indirect source analysis).

Keywords: Social Services, Social work, Community, Participation, relationship.

1. Sarrera eta motibazioa

Lan honek gizarte zerbitzuek dituzten erronken inguruko hurbilpena egiten du, horren aurrean ikuspegi komunitarioan zentratutako proposamenek gauzatuz eta gizarte zerbitzuak parte hartzea ahalbidetzen duten tresnatzat erabiliz. Lanaren azken atalean arreta berezi jarriko da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari, baina gainontzeko lana, marko orokorrarekin egingo da, izan ere, Europako hegoaldeko herrialdeetako gizarte zerbitzuen sistemek ezaugarri antzekoak izan ohi dituzte, eredu mediterranearra bezala ezagutzen dena.

Planteamendua gizarte langintzaren dimentsio komunitariotik gauzatuko da, Gizarte Zerbitzuetan profesional gehientsuenak gizarte langileak diren heinean, ulertzen baitugu, gizarte langintzako diziplinatik elikatutako sistema dela. Gizarte zerbitzuak ongizate kolektiboa eta gizarte babesa defendatzeko funtsezko zutabe gisa ulertzen dira eta hauen berrasmaketa ikuspegi erlazional, komunitario eta parte hartzailetatik egin behar da, ezberdintasun sozialek planteatzen dituzten erronkei aurre egiteko aukerak ematen baitituzte, gizarte eraldaketaren bidean.

2. Arloaren egoera eta helburuak

Gizarte zerbitzuetan lan komunitarioari buruzko hausnarketa beharrezkoa da gaur egun. Jada jakina da, besteak beste finantza krisiak ziurgabetasun testuinguru bat sortu zuela da eta ordutik, zalantzan jarri izan da Ongizate Estatuak (SIIS, 2019) desberdintasun eta bazterketa egoera horiei aurre egiteko duen gaitasuna. Egundak, Covid-19aren pandemiaren eraginaren ondorioz, egoera horretan jende gehiago dago, aurreko egoeraren eraginak irauli gabe ziztuzten pertsonen bigarren krisialdiko eraginak batu zaizkie eta erantzuteko gaitasunaren inguruan zalantzak areagotu dira. Aurrerago ikusiko dugun bezala bat datoz hainbat autore eta gizarte zerbitzuen eremuan ere, funtsezkoa da eraldaketa beharrezko inguruan mintzo dira. Horrela, gizarte zerbitzuek gizarte arazoak konpontzen dituzten laguntza tresna gisa duten ikuspegi tradizioaletik harago, horiek eragile eta ekintza eremu gisa har litezke,

pertsonetik elkarreraginetik abiatuta errealitatea ulertu eta eraldatzeko bidean. Alde horretatik, gure ustez, komunitatearen parte hartzea funtsezko tresna da gizarte errealitatea eraldatzeko.

Egungo ikerketetan hainbat ikuspegitik jasotzen da gizarte zerbitzuetako parte hartzea. Alde batetik, pertsonak gizarte politikak diseinatzeko, gauzatzen eta ebaluatzen parte hartzea dago, berau ahalbidetzen duten egituren bidez. Bestalde, herritarrek berak, bere esku hartze prozesuan duen parte hartzea aurki daiteke eta dimentsio honi heldu zaio gehien ikuspegi profesional eta akademikotik, profesionalen eta artatutako pertsonaren artean partekatutako diagnostikoak eta esku hartzeko planak aurreratuz (Zamanillo, 2008; Santos, 2012). Azkenik, parte hartzearen ikuspegi komunitario eta erlazionala daukagu, gizarte harremanen esparru den komunitateetatik, bertatik eraldaketa sustatzera bideratuta dagoena. Azken honi erreparatuko zaio lan honetan.

Aurrekoari dagokionez, testuinguru autonomikoan gizarte zerbitzuei buruz onartutako azken legeak berariaz aipatzen du komunitarioaren aldeko apustua, parte hartzea. Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) kasuan, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, jasotzen du parte hartzea eta herritarren inplikazioa sustatu behar dela. Era berean, parte hartzea sistemaren beraren printzipiotzat jotzen du, bere helburuak lortzeko hiru mekanismoetako bat izateaz gain:

“Komunitateak gizarte-zerbitzuen esparruan arreta jaso dezaketenez gizarte-beharrizanei erantzuten parte har dezaten sustatzea, bereziki erabiltzaileek eta gizarte zerbitzuen eremuan jarduten diren erakundeek banaka eta elkartuta parte har dezaten sustatzea” (Eusko Jaurlaritzak, 2008, 6.artik. 2.b).

Hau guztia ikusita, honako helburu hauek markatuko dira lan honetan:

- 1) Egungo Gizarte Zerbitzuen sisteman erronkak identifikatzea.
- 2) Erronka horien aurrean lan komunitarioaren ekarpena ezagutzea.
- 3) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren baitan dimentsio komunitarioak duen garapena ezagutzea.

2. Ikerketaren muina

Ikerketa honetan, iturri ez zuzenen azterketa gauzatuko da. Lehenengo atalean, gizarte-zerbitzuen inguruan dagoen bibliografiaren berrikuspena burutu da, bigarren atalean gizarte lan komunitarioarekin egin den bezala. Hirugarren atalean berriz, Eusko Jaurlaritzako Estatistika Organoak egindako Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren, Erakundearen eta Zentroen Estatistikaren (GZEZE) eta Gizarte Zerbitzuen Gastu Publikoaren emaitzen txostenaren; 12/2008 Gizarte Zerbitzuen Legearen, 185/2015 Dekretuaren zein Arartekoak Udala Gizarte Zerbitzuen egoeraren inguruan egindako azterketako txostenaren berrikuspenak egin dira, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren, dimentsio komunitarioak duen garapenaren analisia egite aldera.

2.1- Gizarte zerbitzuak eta ongizatearen egoera: berrikuspen kritikoa

Atal honetan, gizarte zerbitzuetara hurbilketa bat eskainiko dugu, ondoren, justizia soziala eta eraldaketa sustatzeko gaur egungo erronkak identifikatu eta aztertuz. Estatu sozialetan, hezkuntzarekin, enplegu politikekin edo osasunarekin batera, gizarte zerbitzuak Ongizate Estatuaren funtsezko zutabeetako bat izan dira. Helburuen artean, gizarte babesaren eta gizarte premien estaldura bermatzea nabarmendu dezakegu, hainbat administrazioetan eta eskumen mailatan sortutako prestazio eta zerbitzuen bidez.

Europari dagokionez, Ongizate Estatuaren sorrera II.Mundu Gerraren amaiera eta gero eman zen, baina, laurogeiko hamarkadan, politika neoliberal indartsuak sartu zirenean, kritikatu izan zen, kostu handia eta eraginkortasunik ezagatik (Del Pino eta Rubio, 2013). Ordura arte, Ongizate Estatuak, izaera politiko-ideologiko keynesiarra zuena, desmerkantilizatzailea zen, elkartasuna eta birbanaketa baitzeuden ardatz, hain zuzen ere, herritarrentzako babes sarearen ardatz. Hala ere, postulatu neoliberalak presioa egin izan du eta ongizatearen erantzukizuna gizabanakoarengana bideratu du, eta, aldi berean, arlo publikoaren berezko zerbitzuen merkantilizazioa gauzatu (Inza-Bartolome, 2015, 386. or.). Espainiaren kasuan, gainera, diktadura frankistaren abagune politikoak zeharkatzen du Ongizate Estatuaren sorrera. Europar Ongizate Estatuak forma hartzen zihoan bitartean, Espainian, ongintza eta

orientazio asistentzialistak funtsezko zeregina zuen oraindik. Honenbestez, gainerako sistemek baino proiektzio txikiagoa izan du eta garapen horretatik abiatuta, hainbat arrazoiengatik (gazte-sistema, eskumenen eta erakundeen aniztasuna, etab.) esan daiteke gizarte zerbitzuek ez dutela lortu gainerako sistemen sendotze maila bera (Hernandez-Echegaray, 2019; Jaraíz, 2011; Aguilar, 2017).

Ongizate Etatuak, izenak berak dioen bezala, eta ondorioz gizarte zerbitzuak, ongizatea bermatzen saiatzen dira. Esping Andersenek (1993) proposatzen du ongizatearen beharrari, batez ere, ongizatea eta segurtasuna hornitzen dituzten hiru egiturekin erantzuten zaiola: Estatua, merkaturia (enplegua) eta familia (emakumea); horrela, Welfare Triangle deitzen duena osatzen da. Bauman (2000) bezalako egileek Modernitate Likidoaren izenpean, egitura horiek segurtasuna eta ongizatea hornitzeko egitura gisara jarduteko dituzten zailtasunak aipatzen dituzte.

Sistema ez finkatzeak (sistema gaztea, eskumenen eta erakundeen aniztasuna, etab.) sistema bera zalantzan jartzera garamatza, sistema izateko bermeak dituen galdetzerara arte, alegia (Arrieta, 2019). Ildo honetan, gizarte zerbitzuen sistemak beren xedea definitzeko zailtasuna dauka marko legalak oso modu esplizituan jasotzen badu ere, ez baita horrela gertatzen praktikan (Jaraíz, 2011; Aguilar, 2017). Gizarte zerbitzuen azken legetan adierazten da beste edozein babes sistemaren parekoak direla, unibertsalak direla eta, beraz, herritar guztientzat. Hala ere, gizarte-zerbitzuetako arreta profila aztertzerakoan, funtsean, errenta txikiagoa duten pertsonak edo gizarte klaseetako mailarik baxuenetan kokatzen diren pertsonekin lan egiten dela bistaritzen da, ondorioz, profesionalen lana, batez ere, biztanleria oso espezifiko baten oinarrituko premiak asetzea izanik. Hori horrela, gizarte zerbitzuen sistema, unibertsala izateko, sistema erresiduala izatera pasatzen da. Horregatik, ezinbestekoa da gizarte zerbitzuen unibertsaltasunaren ildoan lan egitea, egungo gizarte beharren ikuspegitik, eremu berrietara heltzea ahaleginduz, esaterako, gurasotasun positiboaren inguruko esku hartzeen bidez.

Aurrekoari jarraiki, ezinbestekoa da arreta ereduari dagokion erronka aipatzea. Berretsi egiten da gaur egun ere gizarte zerbitzuak mugatzen dituen, Zamanillok eta Gaitanek (1991) planteatutako eskaera-baliabidearen binomioan oinarritutako joera asistentzialistatik (Arenas, 2016) desegiteko ezintasuna. Binomio horrek esku hartze urgentearen eta puntualaren egiten dio erreferentzia, familien eta gizabanakoen gutxieneko iraupena bermatzeko, batez ere banakako eta familiako esku hartzeekin egiten den lanari. Aitzitik, erabakigarria da gizarte zerbitzuentzat sortzen ari diren premiei erantzuteko arreta eredu iraultzea, pertsona eta kolektiboekin, lehen unean, gehiago lan egiten saiatuz, egoera larriagotu ez dadin, eta, horrela, gizarte lan proaktiboagoa eta prebentiboagoa sendotuz (Dominguez eta Esperanza, 2017). Esanenez, beraz, logika neoliberal eta indibidualistek gizarte zerbitzuak ere eragin dituztela, esku hartze soziala bera, alde batera uzteraino, ikuspegi komunitario eta kolektiboa ere uztearekin batera (Carbonero et al., 2012). Merkantilizazioaren ideiatik abiatuta, eta aurrekoarekin lotuta, Beckek (2006) indibidualizazio prozesuez hitz egiten du, harreman ondasun primarioen kaltea eta suntsipena direla ulertuta. Hala, ulertzen da funtsezkoa dela gizarte zerbitzuetatik gizarte lanaren dimentsio kolektiboa eta estrukturala berreskuratzea, ekintza kolektiboan sakonduz, interes orokorrak norbanakoen interesen aurretik jarritz eta inplikaturako guztien parte hartzea bultzatuz (Rodriguez, 2015). Gizarte zerbitzuek premia horien sustraia, arazo sozial estrukturalak direla ulertzen bada, (gizarte bazterketa, desberdintasuna, pobrezia, migrazio fluxuak, indarkeria matxista, etab.), nekez egin dakieke aurre erantzun soilik indibidual eta asistentzialistekin.

Ongizatearen eta gizarte babesaren ikuspegi kolektibo ezak isla du, halaber, herritarrek gizarte zerbitzuen sistemari berari buruz duten pertzepzioan, izan ere, ez dute gizarte zerbitzuen ikuspegia sistema unibertsal edo funtsezko gisa, hezkuntza sistemarekin edo osasun sistemarekin gertatzen den bezala, baizik eta erresidual eta asistentzialistatzat jotzen dute. Pertsona guztientzako gizarte eskubideen ikuspegia txertatzea beharrezkoa da justizia soziala sustatzeko; izan ere, herritarrek gizarte zerbitzuetatik jaso dezaketen babesaz harago, ezinbestekoa baita gizartearen legitimazioa izatea sistemaren jasangarritasunerako, gizarteak beretzat hartzea behar baitu.

Konklusio gisa, gizarte zerbitzuen egoeraren inguruan dagoen bibliografiaren berrikusten xume honek erronka hauek azaleratu ditu: sistemaren benetako unibertsalizazioa objektuaren mugaketaren bidez; arreta eredu nagusiki erreaktibo, indibidualista eta asistentzialista batetik (unean uneko eta premiazko arretara) izaera prebentibo eta komunitarioko batera igarotzea, eta herritar guztientzat izango den gizarte zerbitzuen sistema eraikitzea, eskubidezko sistema bezala ikusiz.

Alabaina, egungo pandemia testuinguruak, aurretik aipatutako erronka horietako batzuk berretsi besterik ez du egin. Fantovak (2020) adierazten du testuinguruak aukera ematen duela gizarte zerbitzuak birpentsatzeko eta berrerasmatzeko, sistema berreraikitze asmoz, eta, ildo beretik, Zamanillok eta Noguesek adierazten dute "bidegurutze" baten aurrean gaudela; beraz, ezinbestekoa dela aldaketa erradikalak ekarriko dituzten bide berriei ekitea (2020, 8. or.).

2.2. Komunitatea eta partaidetza gizarte zerbitzuen erronken aurrean

Gizarte zerbitzuek dituzten erronketako batzuk identifikatu ditugun honetan, hauei erantzuteko behar duten aldaketaren aurrean, gizarte langintzaren dimentsio komunitarioaren aldeko apustuaren garrantzia azpimarratuko dugu, eta gizarte zerbitzuen legeek arauz jasotzen duten bezala, harremanen eta partaidetzaren ikuspegiaren bidez egitea planteatzen dugu, asistentzialismoaren aurrean, gizarte ekintza eraldatzailearen aldeko apustua eginez.

Ikusi bezala, hainbat lanek Espainiar Estatuko gizarte zerbitzuen ereduaren gabeziak aipatu dituzte (Jaraíz, 2011; Arenas, 2016), herritarren gizarte egoera eta premiei erantzuteko ezintasuna dela eta (Navarro, 2015). Hartara, egileek gizarte zerbitzuen berrerasmatzea izendatu duten planteamenduen inguruko proposamenak egin dituzte (Navarro, 2015; Fantova, 2020 eta Zamanillo eta Nogués, 2020). Horiek guztiek, bestelako lan bat egitearen ideia indartzen dute: komunitatea ehunduz, herritarren parte hartzearekin, modu kolektiboan eta elkarlanean, gizarte ekintza kolektiboan ezinbesteko eragile gisa, beren lurraldeak ingurune demokratikoago bihurtuz (Pastor, 2017).

Gure apustua Gizarte Langintzaren dimentsiotik burutzen den heinean, honen helburu nagusia testuinguru sozial batean, pertsonen beren baliabideak sustatzea da, ehun sozialaren eraikuntzatik eta babes sozialerako estrategien aktibaziotik dela azpimarratu gura da (Rodríguez eta Ferreira, 2018). Pastorrek (2004) dioenez, gizartearen parte hartzea gizarte lan komunitarioaren elementu erabakigarria da eta giza garapenerako komunitatean parte hartzeko gaitasuna funtsezkoa dela adierazten du. Lan komunitarioaren funtsa, bere errealitatearen bilakaera definitu eta eraikitze gai dena komunitatea da eta parte hartzearen garrantzia berrestetik abiatzen da, komunitatearekin lan egitetik, komunitatean edo komunitatearentzat lan egin beharrean (Marchioni, 2004 edo Pastor, 2015). Planteamendu horretan, harremanak zeregin garrantzitsua du ezberdintasunen gutxitzeko eta justizia soziala bermatzeko ahalmena baitu, izan ere, sare komunitarioen bidez parte hartzeak, injustizia eta bazterketa sozialak iraultzea ahalbidetzen du. Komunitatearen prebentzio gaitasunari dagokionez, Fantovak (2017) adierazten du gizarte sarea gero eta zabalagoa den heinean, gizarte bazterketa egoera bat pairatzeko aukera txikiagoa dela.

Komunitatea, lurralde jakin bateko gizarte ekintzaren eragiletzat, hots, subjektu politikotzat hartu beharra dago, komunitatea bera baita, bere berezitasun guztiekin, baliabide nagusia edozein zailtasun egoeraren aurrean (Marchioni, 2004). Horrek, komunitatea berreskuratzeko erronka aitortzea, proiektu komunitarioak garatzea, pertsonen parte hartzea sustatzea, boterea ematea eta pertsonak bizi diren ingurune, auzo eta espazioen errealitatea benetan hobetuko duten proiektuak sortzea esan nahi du. Komunitarioan sakontzeak gizartearekin, komunitateko kideekin, hirugarren sektore sozialeko erakundeekin, gizarte mugimenduekin, auzo mugimenduekin eta abarrekin batera lan egiteko ahaleginak egitea dakar, herritarrek ongizate kolektiboarekiko, eskubideen sustapenarekiko, salaketarekiko eta, azken batean, gizarte eraldaketarekiko duten konpromiso aktiboa bultzatzen dutelako (Escartín, 2012). Gizarte zerbitzuen egungo praktikaren urrun, gizarte langintza kritikoagoak konpromiso sozial handiagoa eskatzen du, justizia soziala, elkartasuna edo ekitatea bezalako balioekin. Arazo sozialak egiturazkoak eta sistemikoak direla kontuan hartu beharra dago, jakinez horiek eraldatzeko gakoa ez dela indibiduala, kolektiboa baizik (Carbonero et.al, 2012).

Hori horrela izanik, udal eremua eta lehen mailako arreta esku hartze eta lan komunitarioko praktikak garatzeko hurbilen dagoen espazio erreferentziala dira (Llobet, 2004). Hala, oinarrizko gizarte zerbitzuak, sistemarako sarbidea izanik, pertsonentzako hurbilen daudenak direnez, behatoki pribilegiatua dira herritarrekin batera ikertzeko eta lan egiteko, kontraboterea gauzatzeko eta sozialki eta politikoki eragiteko. Tokiko eremua funtsezkoa da klase politikoa eta herritarrak elkartzeko, eta testuinguru ezin hobea herritarren ongizatean eragin zuzena duten gizarte politikak garatzeko (Rodríguez, 2015). Udal gizarte zerbitzuek, bere printzipioekin, lan komunitarioa gauzatzeko aukera

eskaintzen dute eta besteak beste, legeak ikuspegi komunitarioa (Community Care) planteatzen du, oro har, jendea bere ingurunean artatu eta gotortzeko gaitasuntzat ulertuta (Fantova, 2014, 104. or.).

Hori horrela izanik, gure planteamendua *sakontze komunitarioa* gauzatzea da. Labur azalduz, dimentsio komunitarioa continuum bat balitz bezala ulertzen dugu, hau da, *Continium komunitarioa*. Continuumaren alde batean, ikuspegi komunitarioa (community care) aurkitzen da, komunitarioaren adiera txikiena bezala ulertuz eta ostera, beste muturrean komunitateko gizarte langintza “purua” kokatuko genuke, Marchioni edo Pastor bezalako egileen defendatzen duten, komunitarioaren adierazpen sakonena izango litzakeena. Bi muturren arteko aldea, parte hartzean dagoela uste dugu, eraldaketara bideratutako parte hartzean, alegia, eta gizarte zerbitzuetan bertsio sakonena utopikoa izan daitekeela ulertuta, continuumaren alde horretara ahalik eta gehien hurbiltzen joatea proposatzen dugu, jardun hori, *Sakontze komunitarioa* bezala izendatuz.

Azken hilabeteotan, auzoetako elkartasuna, artikulazioa, autoantolaketa eta autogestioa azaleratu dira. Sare gisa funtzionatu dute komunitateak zein gizarte ehunek, eta zaurgarritasun egoeren aurrean erantzukizunez jardun dute, gizarte ekintzaren funtsezko eragile bihurtuz. Zamanillo eta Nogués (2020) diote, auzo erantzunek agerian uzten dutela merkatu logikapeko harreman inpersonalek eta profesionalek ordezkatu zituzten lotura pertsonal eta familiarretako batzuk berreskuratzea beharrezkoa dela. Eta gizarte zerbitzuak agertoki bikaina dira esleituta duten gizarte ekintza garatzen den komunitatearen ekarpen guztiak lotu ahal izateko. Covid-19ak eragindako testuinguruak, hain zuzen ere, komunitarioaren planteamendua posible dela erakutsi du eta honen alde egiteko aukera eskaini du.

Laburbilduz, Sakontze komunitarioaren aldeko apustuak erronkak gainditzeko lagundu dezakeen ondoriozta dezakegu. Lehenik eta behin, komunitatean sakontzeko estrategian, komunitatea subjektu politikotzat hartzen da, eta abiapuntu horretatik, Welfare triangle osatzen duten babes estruktura ahultzearen aurrean, ongizatea eta segurtasuna hornitzen dituen egitura gisa ere ulertzen da, gainerakoen osagarri. Gainera, erronka konkretuagoi erreparatu ere, zaurgarritasun edo bazterketa egoera indibidualak arintzean oinarritutako asistentzialismotik harago doazen gizarte zerbitzuak berrasmatzeko aukera edo gizarte zerbitzuen unibertsaltasunari eta normalizazioari ekarpena eginez, komunitate guztiarekin lan egiteko aukera eskaintzen duelako. Era berean, gure gizartearen bereizgarri den indibidualismoaren aurrean, harremanetan oinarritutako lana egitea eskatzen du, arreta eredu proaktiboagoa eta kolektiboagoa burutzea, gizarte kohesioa eta pertsonen arteko elkartasuna sustatuz.

2.3. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren dimentsio komunitarioa aztergai

Atal honetan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemara hurbilketa labur bat egingo dugu, EAEko egungo gizarte zerbitzuen sistemaren dimentsio komunitarioak duen presentziaren garapena ezagutzeko. Bide batez, orain arteko eztabaida errealitate jakin batera hurbildu eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak sakontze komunitarioaren baitan dituen erronkak identifikatzea.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak sakontze komunitarioari dagokionez sortzen dituen aukerei erreparatzen badiegu, bistakoa da Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legea garrantzitsuenetako bat dela. Gizarte zerbitzuak eskubide subjektibo eta unibertsal gisa planteatzeaz gain, lege horrek arreta komunitarioaren ereduaren alde egiten du, arreta emateko prozeduran giltzarri gisa. Legeak jasotzen dituen printzipioen artean, komunitatearentzat interesgarriak diren kontzeptuak daude, hala nola unibertsaltasuna, berdintasuna, ekitatea, hurbiltasuna, prebentzioa, integrazioa, normalizazioa, koordinazioa eta lankidetzeta edo herritarren parte hartzea. Gaineratzen da: “elkarlanean aritzea, laguntzako sare informalei eustea, eragindako pertsonen parte-hartze antolatua sustatzea, (...) eta politika sozial bat garatzea, herritar guztiak herritartasun osoa iritsi dezaten, justizia soziala susta dadin eta bazterketaren egiturazko kausei ekin dakien” beharrezkoa dela, gero eta ugariago eta konplexuago diren egoeren aurrean.

Bestalde, legearekin batera 185/2015 Dekretua, Zorroari buruzkoaren bidez eta Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren eta mapa (Eusko Jaurlaritzak, 2015) ditugu. Tresna horiek guztiak berariaz jasotzen lan komunitarioaren alde, horrela, esan liteke, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esparru legal eta teoriko nagusiek dimentsio komunitarioan sakontzea ahalbidetzen dutela.

Aurrekoaren osagarri gisa, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistikak (EEE-Eusko Jaurlaritzak, 2018) eskaintzen dituen datuek aukera ematen digute ikuspegi komunitario horren garapen praktikoa identifikatzeko, gutxienez honako hauei dagokienez: gizarte-zerbitzuek dituzten zerbitzu eta prestazioak, egin den gastua eta sisteman lan egiten duten langileak. Datu garrantzitsu batzuk baino ez ditugu aipatuko, nolabaiteko testuingurua ezartzeko aukera ematen dutenak, azterketa sakonago baten beharra aitortuz.

Lehenik eta behin, landu diren prestazioei eta baliabideei dagokienez, etxez etxeko laguntza zerbitzuak, arreta jaso duten pertsonen dagokienez ikuspegi komunitario eta hurbilekoena duen zerbitzu gisa ulertuta, behera egin du etengabe 2014ra arte, nahiz eta 2016an seriean erregistratutako baliorik onenera hurbildu zen (2012an, 7,2 pertsona artatu ziren mila biztanleko). Biztanleria zahartzen ari den testuinguru batean, zerbitzuaren estaldurak eta intentsitateak behera egin dute: adineko pertsonen populazioak gora egin arren eta, beraz, mendekotasun handiagoa duen gizartea izan arren, zerbitzuak intentsitate bera izaten jarraitzen du. Beraz, behera egin du sistemak duen ikuspegi komunitario handieneko prestazioaren estaldurak eta intentsitateak (continuum komunitarioaren mailarik baxuena). Bigarrenik, gastuari dagokienez, ikus daiteke gastu publikoaren %50 forala dela, %30 autonomikoa eta soilik %10 udal mailakoa. Gainera, 2008an eredu komunitarioa bultzatzen hasi zenetik, kopuruak aldatu egin dira, eta foru gastua eta gastu autonomikoa %100 eta %70 baino gehiago igo dira, hurrenez hurren; udalen gastua, berriz, %16tik %10era jaitsi da. Azkenik, sisteman lan egiten duten pertsonen dagokienez, 2006tik ia %25 igo da. Hala ere, udaleko gizarte-zerbitzuetako langileak, ia ez dira hazi 12/2008 Legea onartu zenetik (EEO-Eusko Jaurlaritzak, 2018).

Aurreko guztiari erreparatuz gero, ikus daiteke, 2008.urtean, 12/2008 Legearekin komunitarioaren aldeko apustua egin zenetik, batetik, ikuspegi horren funtsezko zerbitzuaren dena gutxitu egin dela; bestetik, komunitarioa garatzeko eremu aproposa den Udal eremuaren gastuak nabarmen egin duela bera eta baita, bertan lan egiten duten langileak ere, lan komunitario gauzatzeko ezinbesteko aktore izanik. Ondoriozta daiteke beraz, legalki apustua egin bazen ere, estrategia horretarako beharrezkoak diren eremuetan, ez dela praktikoki inbertsiorik egin. Beraz, baliabiderik jarri gabe, asko zailtzen da estrategia aurrera eramatea.

Bestalde, Arartekoaren txostenak (2016) ere, planteatzen ditu komunitarioarekin zerikusia duten iradokizun batzuk. Lehenik eta behin, gizarte kohesioa eta pertsonen bizi kalitatea bermatzeko funtsezkotzat jotzen diren zerbitzuak emateko lankidetzan aritzeko beharrari buruz mintzo da. Txostenak adierazten du garrantzitsua dela gizarte ekintza publikoa osatzen duten eta tokikoak soilik izan daitezkeen komunitatearen autoantolaketaarako ekimenak bultzatzea (171-172. or.). Era berean, udal gizarte zerbitzuek garapen komunitarioko eta bitartekaritzako programak abian jartzea planteatzen da, zera azpimarratuz:

“Komunitate lanak (banakako lanaren osagarri denak) (...) komunitateko talde handi bati edo pertsona guztiei irekitzen die parte hartzeko aukera (...) komunitate horren harremanak eta dinamika parte hartzaileak sendotzeko xedeaz aritzeko. Komunitateko ikuspegiak aniztasuna kudeatzea dakar (...) eta beste kontzeptu batzuk txertatzen dizkio iruditeria kolektiboari: hala nola, hurbiltasuna, sarean lan egitea. (...) Langile adituak eta programa sinesgarriak behar dira elementu berritzaileak eta esperimentalak dituzten espazio publikoetan. (...) Komunitate garapenerako programek herritarren garapen sozialari eta ekonomikoari laguntzen diote, horiek suspertuz, indartuz eta autolaguntza sareak sortuz, edo beste ekimen sozial edota ekonomikoetan, lankidetzaren proiektuen bidez” (2016,175.or.).

Beraz, neurri batean, azalekoa izan den, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako ikuspegi komunitarioaren argazki honek, praktikan duen ahultasunaren berri ematen digu, nahiz eta marko legalean komunitarioaren aldeko apustu tinkoa egin den. Covid-19aren eraginez, lan honetan planteatzen den ildotik, are gehiago Covid-19 pandemiaren garaian, ekintza bateraturako eta komunitarioarako moduak sortzen ikusi ditugu, udal mailako herritarren eta gizarte zerbitzuen artean (Naiz, 2020¹). Horrela, esan daiteke, testuinguru globalak aukera ematen duela, autogestionatutako ekimenak eta horiek aitortu eta lankidetzan aritzeko (SIIS, 2019, 6. or.).

¹ Naiz irratitik jasoa. 2020. (apirilak 6). Esku hartu epublikoaren eta komunitatearen ekimenari esker ari gara honi eantzutun” Aizpea Otaegi Errenteriako alkateari elkarrizketa.

4. Ondorioak eta etorkizuna

Lanaren helburua, gizarte zerbitzuen erronkaka ezagutu, komunitarioaren ekarpenean sakondu eta Gizarte zerbitzuen Euskal Sistemaren komunitarioaren garapenak ezagutzea izan dira eta hurrengo ondorioztatu dugu.

Ikusitakoak ikusita, esan genezke, gizarte zerbitzuek zailtasunak dituztela eraldaketari eta justizia sozialari erantzuteko eta horren aurrean, uste dugu beharrezkoa dela komunitarioaren aldeko apustua egitea. Dimentsio komunitarioan oinarritutako estrategia parte hartzailea da, eta, hain zuzen ere, zerbitzu horien ezaugarri diren printzipio eta helburu arautzailetan presente dago. Ildo horretan, gure proposamena sakontze komunitarioaren kontzeptuaren ingurukoa da.

Gizarte Zerbitzuen Sistemaren baitan, oraindik ere arazo eta egoera indibidualetan zentratuta dagoen esku hartzearen pisuak, modu errektiboan eta izaera asistentzialarekin, dimentsio komunitariotik urruntzen gaitu eta honenbestez, baita eraldaketa gaitasunetik ere. Horrela, gero eta gehiago dira gizarte zerbitzuetatik lan erlazionalagoa aldarrikatzen dutenak, sarean eta modu proaktiboan lan egingo duena, gizartea eraldatzeko baldintza gisa. Gizarte Zerbitzuek beharrezko duten berrasmate horretan, sakontze komunitarioaren garrantzian berresten gara. Batetik, lurraldean eta komunitatean zentratutako jardute profesionalak, egoera sozialen hausnarketa eta jadanik existitzen dituen komunitatearen baliabideen sustatzea baitakar. Eta bestetik, beren komunitatearen inguruko erabakiak komunitateko kideek hartzea bultzatzen delako parte hartze komunitarioko formen artikulazioaren bidez.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari buruzko datuak modu laburrean berrikusteak erakusten digu komunitarioari eremu legalean emandako garrantziak ez duela behar beste isla izan praktika profesionalean, ezta inbertsioa eta testuingurura egokitzeari buruzko baldintzetan ere. Alderantziz baina, marko normatiboak horretarako aukera eskaintzen duela ikusi da, beraz, Sakontze komunitarioaren estrategian ekarpenak egiten jarraituko dugu, justizia soziala eta eraldaketaren bidean aurrera egiteko eta bide batez, gizarte zerbitzuen errokak gainditzeko. Horrela, sakontze komunitarioaren planteamendutik abiatuta, partaidetzan eta harreman sare eta sare komunitarioetan oinarritutako lanerantz bideratzea premiazkoa eta lehentasunezkoa da, boterea partekatzea, pertsonak beren bizitzari eragingo dien erabakietan parte hartzea eta lankidetzan eta kooperazioan bizitzeak merezi izango duen lurralde bidezkoagoak eraikitzea.

5. Erreferentziak

- Aguiar, M. (2017): Servicios Sociales comparados: Entre la beneficencia y la inversión social, in E. Del Pino. eta M^aJ. Rubio. (arg.), *Los Estados de Bienestar en la encrucijada -2*, Tecnos, Madril, 389-404.
- Arateko. (2016): *Udal Gizarte Zerbitzuen egoera Euskal Autonomia Erkidegoan*. Arateko, Gasteiz.
- Arenas, M. 2016. ¿Usuarios o ciudadanos? Intervención y participación en las políticas y servicios sociales, *Comunitania*, 11, 27-43.
- Arrieta, F. (2019): *El archipiélago del bienestar. Los servicios sociales en el País Vasco*. Catarata, Madril.
- Bauman, Z. (2000): *Liquid Modernity*, Polity Press, Cambridge.
- Beck, U. (2006): *La sociedad del riesgo. Hacia una nueva modernidad*, Kultura Ekonomikoko Funtza, Buenos aires.
- Carbonero, M^a A., Caro, F., Maestre, J., Oliver, M. eta Socías, C. (2012): Reconceptualizando los servicios sociales. Recuperar el trabajo social comunitario como respuesta al nuevo contexto generado por la crisis, *Documentos de Trabajo Social*, 51, 9-25.
- Del pino, E. eta Rubio, M^aJ. (2013): El estudio comparado de las transformaciones del Estado de Bienestar y las políticas sociales: definiciones, metodología y temas de investigación, in E. Del Pino eta M^aJ. Rubio (arg.), *Los Estados de bienestar en la encrucijada*. Tecnos, Madril.

- Dominguez, F. y Esperanza, B. (2017): Corrientes teóricas y herramientas para el trabajo social comunitario. La importancia de la participación en la intervención comunitaria, in A.I.Lima, E.Pastor eta C.Verde (arg.), *XIII Congreso Estatal y Iberoamericano de Trabajo Social, Libro de actas*, Aranzadi, Zizur Txikia, 2137-2147.
- Escartin, J. (2012): Indaga, crea y construye: Participación ciudadana y Trabajo Social Comunitario, *Servicios Sociales y política social*, 91, 41-54.
- Esping-Andersen, G. (1993): *Los tres mundos del Estado de Bienestar*, Institució Alfons el Magnanim, Valentzia.
- Eusko Jaurlaritzak- EEO. (2018): *Estadística de Servicios Sociales y Acción social*. Gasteiz. http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/informes_essec/es_def/Informe%202013-2016%20ESSEC_Gasto%20P%C3%BAblico%20S.Sociales.pdf .
- Eusko Jaurlaritzak. (2016): *EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa*, Eusko Jaurlaritzak, Gasteiz.
- Fantova, F. 2014. *Diseño de políticas sociales: Fundamentos, estructura y propuestas*, CCS, Madrid.
- . 2020. Tindran futur els nostres serveis socials després de la pandèmia del Covid-19? <https://ajuntament.barcelona.cat/dretsocials/sites/default/files/revista/revista-barcelona-societat-26-cat.pdf> .
- Hernandez- Echegaray, Ar. (2019): Retos de los Servicios Sociales en España según la opinión experta en Trabajo Social, *Alternativas, Cuadernos de Trabajo Social*, 26, 123-150.
- Jaraíz, G. (2011): *Intervención social, Barrio y Servicios Sociales Comunitarios*, Fundación Foessa, Madrid.
- Llobet, M. (2004): El trabajo social comunitario como una oportunidad y estrategia para poder re-pensar, transformar y co-construir la organización de la atención primaria en servicios sociales, *Servicios sociales y política social*, 66, 63-76.
- Marchioni, M. (2004): *La acción social en y con la comunidad*. Zaragoza: Certeza.
- Navarro, S. 2015. En busca del fuego en la intervención social: vindicación de lo comunitario, artesanía de lo relacional. http://www.rayuelacreactiva.com/images/stories/pdf/int_social_fuego.pdf .
- Pastor, E., Verde, C. eta Lima, A. (2019): Impact of neo-liberalism in Spain: research from social work in relation to the public system of social services, *European Journal of Social Work*, 22, 277-288.
- Pastor, E. (2004): La participación ciudadana en el ámbito local, eje transversal del trabajo social comunitario, *Alternativas. Cuadernos de Trabajo Social*, 12, 103-137.
- . (2015): *Trabajo Social con Comunidades*, Universitat, Madrid.
- . 2017. Mechanisms for participation in the public system of social services in Spain: opportunities for the development of social work with a citizen approach, *European Journal of Social Work*, 20, 441-458.
- Rodríguez, M. eta Ferreira, J. (2018): The contribution of the intervention in social networks and community social work at the local level to social and human development, *European Journal of Social Work*, 21, 863-875.
- Rodríguez, M. (2015): Ciudadanía y participación: conceptos y realidades en Trabajo Social Comunitario, *AZARBE Revista Internacional de Trabajo Social y Bienestar*, 4, 5-12.
- Santos, J. (2012): *El cuarto Pilar. Un nuevo relato para los Servicios Sociales*, Paraninfo, Madrid.
- SIIS. (2019): Revisión de tendencias, innovaciones y buenas prácticas en el ámbito de los servicios sociales, *Zerbitzuan*, 70, 5-31.
- Zamanillo, T. eta Nogués, L. (2020): Carta abierta a profesionales u políticos de los Servicios Sociales en tiempos de la Pandemia del Covid-19. Asociación Foro SERVSOCIAL Madrid. https://4f8bb68a-ed9b-44a6-bdf2-36b119d05fbb.filesusr.com/ugd/8f0dee_a983ce2edd584dc2a32157ef5eca0d38.pdf .
- Zamanillo, T. eta Gaitan, L. (1991): *Para comprender el trabajo social*, Verbo Divino, Lizarra.
- 12/2008 LEGEA, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, EHAA, 246.zk, 7143.
- 185/2015 DEKRETUA, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Zerbitzuen eta prestazioen zorroari buruzkoa, EHAA, 206.zk, 4561.

6.Eskerrak

Lan hau, Eusko Jaurlaritzako doktoreareko beka programaren baitan kokatzen da.